

Bai mutilek, bai neskek uste dute prestakuntza berdina izanik mutilek aukera gehiago dituztela lanpostu bat eskuratzeko

Emakume gazte langileek gizon gazte langileek baino prekarietate handiagoa jasan behar dute

[Emakumeen Nazioarteko Eguna](#) (martxoak 8) dela eta, [Gazteen Euskal Behatokiak](#) zera gogorarazi nahi du: emakumeek gizonen baino prekarietate handiagoa jasaten jarraitzen dute. Era berean, datu berriak plazaratu nahi ditu lana eskuratzeko arandik ere gizonen alde dagoen aukera ezberdintasunari buruz.

Gazteen Euskal Behatokiaren azken publikazioak, [Gazteak eta enplegua Euskadin 2015](#), emakume eta gizon gazteen lan egoerari ekiten dio. Bertan begi-bistakoa da emakumeek gizonen baino aldi baterako kontratu gehiago dituztela, lanaldi partzialetan lan gehiago egiten dutela, soldata baxuagoak dituztela eta enplegua galtzeko edo prekario bihurtzearen aurreikuspen altuagoa dutela.

- ✓ 16 eta 29 urte bitarteko emakumeen % 51k aldi baterako kontratua du. Gizonen artean, ostera, % 38,2k.
- ✓ Lanean ari diren emakume gazteen % 48,9 lanaldi partzialean egiten dute (gehienetan beren borondatearen kontra; adibidez, lanaldi osoko lanik aurkitu ez dutelako). Bestetik, gizonen artean % 22,1 dira.
- ✓ Lanaldi osoan daudenen artean neurtuta (emakume gazteen lanaldi partzialen kopuru handiagoaren eragina kentzeko), 30 urte baino gutxiagoko emakumeen batez besteko hileko soldata 1119 eurokoa da. Adin tarte berdineko mutilen soldata, aurrean, 1242koa.
- ✓ 16 eta 29 urte bitarteko emakume langileen artean % 25,8k lana galtzeko arrisku handia hautematen du; beste % 10,0k uste du lana ez duela galduko, baina lana prekario bihurtzeko arriskua dagoela aurreikusten du. Lanean ari diren gizonen artean, ostera, % 21,5ek uste du lana galtzeko arriskua duela eta beste % 7,6k beren lan baldintzak okertzearen arriskua hautematen du. Guztira, emakume gazteen % 35,8k hautematen dute lana galtzeko edo lan baldintzak okertzeko arriskua. Adin berdineko mutilen artean % 29,1 dira.

16 eta 29 urte bitarteko gazteen lan balditzen arteko ezberdintasunak		
	Sexua	
	Emakumeak	Gizonak
Aldi baterako kontratua (%)	51,0	38,2
Lanaldi partziala (%)	48,9	22,1
Batez besteko soldata lanaldi osoan (€)	1119	1242
Enplegua galtzeko edo prekario bihurtzearen aurreikuspena (%)	35,8	29,1

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia ("Gazteak eta enplegua Euskadin 2015")

Bestetik, Gazteen Euskal Behatokiak datu aurrerapena ere aurkezten du. Datuok Gazteen Euskal Behatokiak 2016an 15 eta 29 urte bitarteko 750 neskeri eta 750 mutili eginiko inkesta batetik datoz eta *Euskadiko gazteak 2016* ikerketan agertuko dira.

Inkesta horretan gazteei lanpostu bat eskuratzeko prozesuan zeudela imajinatzeko eskatu zitzaion. Lanpostua beren ikasketa eta prestakuntzari egokituta zegoen eta hautaketa prozesuan lehiakidea beren adina, prestakuntza eta esperientzia berdina zuen mutila edo neska zen (gazte bakoitzari beste sexuko lehiakidea zela esan zitzaion). Inkestatuei galdetu zitzaion beren ustez zeinek zeukan lanpostua eskuratzeko aukera gehiago: mutilak, mutila izateagatik; neskak, neska izateagatik; edo batek ere ez, uste zutelako sexuak ez zuela inolako eraginik kasu horretan.

Mutil eta neska gehienek uste zuten hautagaien sexuak ez zuela eraginik; hala ere, mutilek neskek baino neurri handiagoan zioten hori (% 63 eta % 58, hurrenez hurren).

Bestalde, nesken % 28k uste zuen mutilak berak baino aukera gehiago zituela, mutila izateagatik, eta gauza bera zeritzoten mutilen % 21ek ere.

Nesken % 8k eta mutilen % 10ek bakarrik uste zuen neskak aukera gehiago izango zituela, neska izateagatik.

Emakume gazteek lana eskuratzeko gizonen baino aukera gutxiago dituztela (prestakuntza bera izanda ere) uste dutenen portzentajeak 2012ko neurrian jarraitzen du, baina 2008 urtearekiko igo egin da (krisi ekonomikoaren aurreko egunetan langabezia tasak baxuagoak ziren).

